



Arabako kalkulu Gunea, A.B.  
Centro de Cálculo de Álava, S.A.

**OINARRI ESPEZIFIKOAK, ARABAKO KALKULU GUNEA AB –  
CENTRO DE CÁLCULO DE ÁLAVA SA FORU SOZINETATE  
PUBLIKOAN SISTEMEN ANALISTAREN (PROFIL OROKORRA)  
BOST LANPOSTU BETETZEKO LANGILE LAN KONTRATUDUNEN  
HAUTAKETA ARAUTZEN DUTENAK**

**(deialdiaren kodea: 2022002)**

**LEHENENGO OINARRIA.- LANPOSTUAREN OINARRIZKO EGINKIZUNAK:**

Azpiegituren Alorrean integratuko da, proiektuaren burutzaren eta, aldi berean, alorreko arduradunaren mendekoan.

Lanbide jardueran AKSAn ondoko eginkizunak bete beharko ditu:

- Produktuak, sistema eragileak eta datu baseak instalatzea eta eguneratzea
- Azpiegiturak administratu, monitorizatu eta mantentzea
- Eskaerak, gorabeherak eta arazoak ebaztea
- Software elementu batzuen eta besteen inguruneetatik igarotzea (hedatzeak)
- Aholkularitza teknikoa eta parte hartzea proiektuak egikaritzean
- Agiri teknikoak idazten eta ebazten parte hartzea
- Merkatuaren azterketa eta irtenbide berrien diseinua

**BIGARREN OINARRIA.- ESKAERAK AURKEZTEA:**

Izangaiek posta elektronikoko bidez bidali beharko dituzte oinarri orokorretako 3.1) atalean eskatzen diren agiriak, honako helbide honetara: [2022002@qualisconsultores.es](mailto:2022002@qualisconsultores.es).

Eskabideak aurkezteko epea 2022ko otsailaren 28an amaituko da.





Arabako kalkulu Gunea, A.B.  
Centro de Cálculo de Álava, S.A.

### **HIRUGARREN OINARRIA.- ESKATUTAKO TITULAZIOA:**

- Telekomunikazioetako goi mailako ingeniaritza edo Informatikako goi mailako ingeniaritza edo Informatikako lizentziatura edo gradu baliokidea.
- Beste ingeniaritza batzuk, lizentziatura Fisiketan edo Matematiketan edo gradu baliokideak.

### **LAUGARREN OINARRIA.- HAUTAKETA PROZESUAREN DISEINUA ETA PROBEN BALIOESPENA:**

#### **1. FASEA: EZAGUTZA ESPEZIFIKOAK EBALUATZEA:**

Nahitaezkoa eta baztertzaila izango da (GAI – EZ GAI).

- Honako hauek administratzeko eta konfiguratzeko ezagutzak:
  - Zerbitzariko sistema eragileak
  - Aplikazioen zerbitzariak
  - Datu baseen zerbitzariak

Zinpeko adierazpen bidez egiaztatzea goian adierazitako jakintza espezifikoak dituela.

Alegatutako merezimendu guztiak eskaerak aurkezteko epea amaitzen den egunean eduki beharko dira, eta lan kontratua formalizatzen den unera arte mantendu beharko dira.

#### **2. FASEA: MEREZIMENDUEN BALORAZIOA (geh. 30 puntu):**

##### **A) Titulazioak (geh. 10 puntu):**

- Telekomunikazioetako goi mailako ingeniaritza edo Informatikako goi mailako ingeniaritza edo Informatikako lizentziatura edo gradu baliokidea: 8,5 puntu.
- Beste ingeniaritza batzuk, lizentziatura Fisiketan edo Matematiketan edo gradu baliokideak: 4 puntu
- Lanpostuaren eginkizunekin zerikusia duen masterra: 1,5 puntu





Arabako kalkulu Gunea, A.B.  
Centro de Cálculo de Álava, S.A.

## B) Hizkuntzak (geh. 4 puntu):

### B.1) Hizkuntza: Euskara (geh. 2 puntu):

- Titulu ofizialaren bidez egiaztatu beharko da.
- Ez da egingo hizkuntza eskakizuna egiaztatzeko azterketarik.
- Honela balioetsiko da:
  - B1: **0,5 puntu.**
  - B2: puntu 1.
  - C1: **1,5 puntu.**
  - C2: 2 puntu.
- Titulu ofizial bi edo gehiago izanez gero, maila gorenekoa bakarrik balioetsiko da.

### B.2) Hizkuntza: Ingelesa (geh. 2 puntu):

- Titulu ofizialaren bidez egiaztatu beharko da.
- Ez da egingo hizkuntza eskakizuna egiaztatzeko azterketarik.
- Honela balioetsiko da:
  - B1: **0,5 puntu.**
  - B2: puntu 1.
  - C1: **1,5 puntu.**
  - C2: 2 puntu.
- Titulu ofizial bi edo gehiago izanez gero, maila gorenekoa bakarrik balioetsiko da.

## C) Esperientzia (geh. 16 puntu):

- CV, curriculum memoria eta lan bizitzaren txosten eguneratua.

Bi urtetik gorako esperientzia izatea lanpostuetan, baldin eta azken 4 urteetan lehenengo oinarrian deskribatutako eginkizunak bete baditu.	<ul style="list-style-type: none"><li>- Oso ondo betetzen du: <b>16 puntu.</b></li><li>- Nahiko ondo betetzen du: <b>12 puntu.</b></li><li>- Ondo betetzen du: <b>8 puntu.</b></li><li>- Ez du ondo betetzen eta hobetu beharreko alorren bat dauka: <b>4 puntu.</b></li><li>- Ez du ondo betetzen eta hobetu beharreko nahiko alor dauka: <b>0 puntu.</b></li></ul>
---	--



Arabako kalkulu Gunea, A.B.  
Centro de Cálculo de Álava, S.A.

Urtebete baina gehiagoko esperientzia izatea lanpostuetan, baldin eta azken 4 urteetan lehenengo oinarrian deskribatutako eginkizunak bete baditu, sektore publikoko erakunderen batek zuzenean kontratatuta.	<ul style="list-style-type: none"><li>- Oso ondo betetzen du: <b>16 puntu.</b></li><li>- Nahiko ondo betetzen du: <b>12 puntu.</b></li><li>- Ondo betetzen du: <b>8 puntu.</b></li><li>- Ez du ondo betetzen eta hobetu beharreko alorren bat dauka: <b>4 puntu.</b></li><li>- Ez du ondo betetzen eta hobetu beharreko nahiko alor dauzka: <b>0 puntu.</b></li></ul>
---	---

Alegatutako merezimendu guztiak eskaerak aurkezteko epea amaitzen den egunean eduki beharko dira, eta lan kontratua formalizatzen den unera arte mantendu beharko dira.

### **3. FASEA: LANPOSTUAREN PROFILERA EGOKITZEAREN INGURUKO PROBA PSIKOMETRIKOA**

- Nahitaezkoa eta baztertzaila izango da (GAI – EZ GAI).
- Probak egingo zaizkie 1. fasean gaitzat jo diren eta 2. faseko emaitza orokorrean puntuaziorik onenak lortu dituzten 10 pertsoneri.
- Izangaiek proba bat edo proba batzuk egin beharko dituzte lanpostuarekiko eta gauzatu beharreko eginkizunekiko egokitasuna balioesteko xedez.
- Qualis Consultores de Talento SLk txosten osatu bat igorriko du 4. faserako proposatutako izangai bakoitzaren inguruan.
- Gaitzat jotzen diren izangaiek aurrez aurreko elkarrizketa egin beharko dute AKSAn, hautaketa prozesu honetarako eratu den hautaketa epaimahaiko kideen aurrean.
- Inor EZ GAI gertatzekotan, probak egingo zaizkie hurrengo puntuazio onenak dituzten pertsoneri, eta hurrengo fasera (4.era) pasatuko dira gaitzat jo eta hamar puntuazio onenak dituztenak.



Arabako kalkulu Gunea, A.B.  
Centro de Cálculo de Álava, S.A.

#### **4. FASEA: GAITASUN ETA TEKNIKA ELKARRIZKETA (geh. 20 puntu)**

- Nahitaezkoa.
- Elkarrizketa pertsonala egingo zaie 3. fasean gaitzat jo diren eta 2. faseko emaitza orokorrean puntuaziorik onenak lortu dituzten 10 pertsoneri.
- Aipatutako elkarrizketa hautaketako epaimahaikideek egingo dute AKSaren egoitzan, eta ardatz izango ditu lanpostuko trebetasun orokorrak eta zeharkakoak zein teknikoak.
- Bi zati izango ditu elkarrizketak:
  - **Gaitasunei buruzkoa:** Elkarrizketa horretan honako gaitasun hauek balioetsiko dira: (geh. 15 puntu)
    - Taldean lan egiteko gaitasuna
    - Presiopean lan egiteko gaitasuna
    - Komunikazio gaitasuna
    - Autonomia eta inizatiba
    - Inplikazioa lanarekin

Fase honetako puntuazioa izango da eskala honen arabera aztertutako gaitasunetako bakoitzean lortutako puntuazioen batura:

- Gaitasunik ez: 0 puntu
- Hobetu beharreko alorrak ditu argi eta garbi: 0,75 puntu
- Gaitasuna garatzeko fasean: 1,5 puntu
- Gaitasun maila aurreratua: 2,25 puntu.
- Gaitasun maila bikaina: 3 puntu.
- **Arlo teknikoari buruzkoa:** Honako hauek administratzeko eta konfiguratzeko ezagutzak: (geh. 5 puntu)
  - Zerbitzari Sistema Operatiboak (z/OS, Windows, Linux) eta Birtualizazioa (VMware): geh. 2 puntu
  - Web Zerbitzariak (IIS) eta Edukien Kudeatzaileak (LifeRay): geh. puntu 1
  - Aplikazioen zerbitzariak (JBoss, .NET) eta edukiontziak (OpenShift): geh. puntu 1
  - Datu baseen zerbitzariak (DB2 for z/OS, SQL Server): geh. puntu 1



Arabako kalkulu Gunea, A.B.  
Centro de Cálculo de Álava, S.A.

- Elkarrizketa pertsonala amaitutakoan, akta jaso eta izenpetuko da, eta bertan, hautaketako epaimahaikide guztiek emandako puntuazioak agertuko dira.
- Hamar hautagaietakoren batek gutxienez 7,5 puntu lortzen ez baditu gaitasun zatiaren balorazioan elkarrizketan, eta 2,5 puntu alderdi teknikoaren balorazioan elkarrizketan, hautaketa prozesutik kanpo geratuko da, eta gainerako pertsonek aurrera jarraituko dute.
- Hamar hautagaietakoren batek ere ez baditu lortzen gutxienez 7,5 puntu gaitasun zatiaren balorazioan elkarrizketan, eta 2,5 puntu alderdi teknikoaren balorazioan elkarrizketan, hautaketa prozesutik kanpo geratuko dira hamarrak, eta Hautaketa Epaimahaiak hurrengo hamar hautagaiei deituko die.

#### **FASE BAKOITZEKO PUNTUAZIOEN LABURPENA:**

1. FASEA	2. FASEA	3. FASEA	4. FASEA	GUZTIRA
E/A	30	E/A	20	50

